

ARTIKULUAK BIDALTZEKO ARAUAK

Baldintza orokorrak

- Artikuluak originalak eta argitaragabeak izan behar dira.
- Artikuluek gehienez 25 orrialdeko luzera izango dute (Times New Roman, 12, lerroarteko espazio sinplea).
- Artikuluekin batera abstract edo laburpen bat bidaliko da gaztelaniaz, ingelesez, eta egileak Euskal Autonomía Erkidegokoak direnean, euskaraz. Horren gutxi gora beherako luzera 150 hitzekoa izango da.
- Artikuluek 3 eta 5 arteko hitz gako izango dituzte (gaztelaniaz, euskeraz eta ingelesez), lañaren edukiaren ideia azkarra eman eta haren katalogazioa erraztuko dutenak.
- Atalak eta azpiatalak zenbaturik azaldu behar dira (1.;1.1;1.1.1., a)b)).
- Genero berdintasunaren ikuspuntutik hizkuntza inklusiboa erabiltzea gomendatzen da.
- Jatorrizko artikulua Word formatuan bidaliko da honako helbide elektronikora: luis.belaustegi@ehu.eus

Estiloari buruzko oinarritzko arauak

- Arau orokor gisa, eta jarraian adieraziko diren salbuespenak salbu, artikulua testu normalean idatziko da oso-osorik. Hori dela eta, kontzeptu edo ideiarene bat nabarmentzeko hizki lodiak, azpimarratuak edota larriak erabiltzea baztertzen da.
- Siglak eta akronimoak hizki larriz idatziko dira eta horien arteko banaketarako ez da punturik erabiliko (EEBB, EE.BB.-ren orde; CCOO, CC.OO.-ren orde; LANE, L.A.N.E.-ren orde.)

-Kakotxen arteko hitzez hitzeko adierazpen eta esaldietarako bakarrik erabiliko da.

-Aipamen luzeak, bi lerro baino gehiagokoak arau orokor gisa, kakotxik gabee gongo dira, hizki zuzenean eta testu normala baino gorputz bat baxuago. Goian eta behean bazterrekiko 3 milimetroko espazioa utziko da paragrafo osoan.

-Kakotxik gabeko hizki etzanak egunkari edo liburuen izenburuetarako, beste hizkuntza bateko hitzetarako, edota hitz edo adierazpenen bat nabarmentzeko erabiliko dira.

-Hizki zuzenean eta kakotxen artean, ohiko hizkuntzaren arabera (hitzaren hitzez hitzeko esanahiarekiko aldea adierazteko).

-Taulak, laukiak eta irudiak hurrenkera jarraituz zenbakituko dira, arabiar zenbakiak erabiliz. Idazpuru labur bat izango dute eta testuan haiei aipu egingo zaie (1 taula, 1 laukia, 1 irudia, etab.).

Erreferentzia bibliografikoarentzako formatua

Testuan sartutako erreferentzia bibliografikoak bi eratan aurkeztuko dira, testuinguruaren eta paragrafoaren idazkeraren arabera:

- a) Autorearen izena parentesi artean, urtea eta orrialdearen zenbakia, adibidez, (White, 1987:43) edo (Guerin letra etzana, 1992:23-34).
- b) Autorearen izena, eta parentesi artean, urtea, adibidez, White (1987) edo Guerin letra etzana. (1992)

Erreferentzia bibliografikoak alfabeto hurrenkeraren arabera sartuko dira lañaren amaieran, eta kronologikoki egile beraren lan bat baino gehiago dagoenean. Aldizkarien izenak eta liburuen izenburuak hizki etzanetan jarriko dira. Genero berdintasun eremuko gomendioak betetzearren, ahal den neurrian, egileen izen osoa jarriko da eta ez hasierako hizkia bakarrik.

-Aldizkarietako artikulak: Arnull, Anthony (2006): "Family reunification and fundamental rights", *European Law Review*, 5, 611-612.

-Liburuak: Villoria, Manuel eta Del Pino, Eloisa (1997): Manual de Gestión de los Recursos Humanos en las Administraciones Públicas, Madril, Tecnos.

-Liburuetako kapituluak: Domínguez, Fernando (1996): "Gestión planificada de Recursos Humanos (Modelo de una empresa multinacional)", Ordóñez, Miguel (arg.), Modelos y Experiencias Innovadoras en la Gestión de los Recursos Humanos, Bartzelona, Gestió 2000, 343-357.